

Piarres Larzabal

NOR DA HOBENDUNA?

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (IV)*, Piarres
Larzabal (Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=275>

NOR DA HOBENDUNA?

Jokalariaiak:

XABIN: Medikua.

KARMELA: Xabin medikuaren arreba.

MARTXEL: Hil den Paristar bat.

MAITE: Hilaren alarguna.

PATXI: Medikuaeren mutila.

IXIDOR: Martxel hil duela akusatua eta preso emana.

MARITXU: Ixidorren emaztea.

ANTTONI: Eri bat.

XANTI: Bertze eri bat.

TEREXA: Xantiren emaztea.

BELTZA: Kriminel gisa akusatua.

ERRAMUN: Jujea.

Joka-lekua:

Mediku baten sala. Ezkerretik kanpoko atea. Banka bat. Ezkinean leihoa. Medikuaeren bulego atea,

eta bertze bat ganbaretarakoa. Bulego ttipi bat.
Mahain bat kazetaz estalia. Armario ttipi bat.

LEHEN AGERTALDIA

(Hastean, hiru lagun jarriak: Anttoni, Terexa eta Xanti, hauek senar emazteak, langile jantzi xinpletan)

ANTTONI: Ez. Ez naiz hemengoa, bainan hamabostetik heldu naiz, medikuak ikus nezan; haren eskue-tan naizenaz geroztik, hainitz hobeki sendi dut ene burua.

TEREXA: Horra! Horra! Hobe segurki.

ANTTONI: Bai, emaztea; sinets nezazu: Hau bezalako medikurik guti da.

TEREXA: Aditu duzu, Xanti?

XANTI: Bon, bon!

ANTTONI: Hau, zure senarra...?

TEREXA: Bai, anderea. Bainan, medikua arras ezaguna izanik ere, ez da gosturat heldu hunat.

ANTTONI: Hunen erranak segituz geroz, sinets-azu berehala sendatuko zirela.

TEREXA: Ba, bainan arras sinets gogorra baita ene senarra!

XANTI: Bainan, Terexa! Medikuak erran duela eta, nola pasa nezazke bi hilabete jan gabe?

TEREXA: Bi orenetarik katilu bat esne hartzen duzu! Ez erran beraz jan gabe bizi zirela.

XANTI: Esnea... esnea! Arnoa balitz...! Esnea hartzea jatea ote da?

TEREXA: Jatea ez bada ere, janaritzea da.

XANTI: Zer aditu behar den! Esneak janaritu? Tripak bete?

TEREXA: Haur ederrak hazten dira esnearekin!

XANTI: Ni ez naiz haurra. Gorputzari bero emaiten ez diona, edo hortzarekin kraska kraska egiten ez duena, neretzat deus ez da!

ANTTONI: Estomakatik sofritzen duzu?

TEREXA: Bai, anderea! Bazinaki gure herri huntan nolako espantua egiten diren gizonen artean! Beti elgarren jelsian dabilta, norke gehiago jan! Eta gero... gerokoak. *(Ate batetik bertzera, xuriz bezti, infirmiertsan bat pasatzen da)*

ANTTONI: Neskato hori, Xabin jaunaren arreba da?

TEREXA: Bai anderea. Karmela andereñoa. Zerutik jautsi aingeru bat! Ez da nehor, horrek bezain goxoki zauriak tratatzen dituenik.

XANTI: Bai, atzo bazuken lan! Bide kurutzetik ekarri omen diote gizon bat ongi kolpatua, bi otok elgar jota.

ANTTONI: Jesus! Jesus!

TEREXA: Ba, ba! Zer mendean bizi giren haatik! Otoak elgar joak, etxe bat errea, eta guzien gainerat, gizon baten hiltzea!

ANTTONI: Aitaren...

TEREXA: Zer... ez zinakien?

ANTTONI: Ez... Nola nahi duzu jakitea. Belarretan ari gira, ahantziak, eta *Herria* ere, igandetan bakarrik heldu.

TEREXA: Egia da. *Basque-éclair*-ek ukanen du zer erran. Abiatuak dira jadanik kaseta egileak. Jende guzia airean dugu. Nahi baduzu aditu, bide kurutzeko usina ideki geroztik, hemen ez da bakerik. Kanpotiarrak uholdeka heldu zauzki-gu, eta, nahitez, denak heien kotsu gaixtoa hartzen ari gira.

ANTTONI: Segurki! Ez zen hemen lehen ikusten, orai ikusten denik.

TEREXA: Ez eta entzuten, anderea! Zer mihi zikinak! Eta arno edaleak! Eta gero, arnoa edan-eta, dena oihu, kalapita.

ANTTONI: Bai, bai. Jainkoak begira ditzala gure neska mutilak! Eta... nor dute hil?

TEREXA: Duela hamabost bat urte Paristik hunat etorri gizon bat. Mutil ibili zen lehenik, baina gero loterian suertea izan-eta, iturri ondoko eihera erosi zuen. Eta diotenaz diru puska bat egina. Puñalez hil omen dute. (*Sahetsa eskuina erakutsiz*) Eskuineko sahetsean joa omen da.

ANTTONI: Jauna! Jauna! Eta... hiltzalea nor da?

TEREXA: Nehork ez daki. Jukeak, Galardiko Ixidor zapa-taina preso eman arazi du, baizik eta Paristar hori hil zuten gauean sekulako eztabaida izana zutela elgarrekin plazako ostatuan.

XANTI: Ba, Ixidor! Galardiko Ixidor! Ez da posible.

TEREXA: Eta zuk zer dakizu?

XANTI: Nik badakit. Nik, Ixidor ontsa ezagutzen dut eta segur naiz ez duela hobetik. Paristarra hil duena bertzerik daiteke. Ez da hor dudarik Joset Beltza dela.

TEREXA: Ba beharbada, inguru huntan ere denek hori diote. Denek opinioea «horrek» dute. Baina Ixidor preso altxatzean jukeak bazakien zer ari zen.

XANTI: Errazu nahi duzuna! Jukeak ere nahi duena egin dezake, baina kriminela Joset Beltza da, ez da bertzerik. (*Patxi agertzen da, medikuaren muti-*

la; presaka armariorat doa, banda baten xeka)
Patxi, zer da berri?

PATXI: Utz nezak, mutil! Ez diat astirik. *(Bere buruare-kin)* Banda handienetarik...

XANTI: Ez ote duk egia, Ixidor ez dela hiltzalea?

PATXI: *(Xantiri buruz itzulirik)* Egia? Bertzerik erraiten duena zerri bat da!... *(Bere alde)* Banda handienetarik. Kontuz, ez ahantz! *(Bertzeri)* Ixidorrek ez dezake uli bat ere hil! Jujeak burua galdua du!

XANTI: Hori da guziek dioguna.

TEREXA: Bainan, Patxi, adi-zazu! Ez ziona Ixidorrek diru puska bat galdatua Paristarrari?

PATXI: Ba, hala da. Eta Paristarrak errefusatua ere! Eta gero kalapitan arizanak ziren, eta Martxel zenak, delako Paristarrak, zartako bat emana omen zion.

TEREXA: Eta Ixidorrek ez ziona erran makil ukaldika garbituko zuela?

PATXI: Bai; bainan Martxel ez dute makil ukaldika garbitu, bainan ba puñal batekin.

TEREXA: Errex da puñalaren atxemaitea!

PATXI: Ez. Guk, ez dugu puñalik ibiltzen sakelan. Hor-takotz, nere ustez, Joset Beltza da Martxelen hil-

tzalea, biak egiazko kaskoin bezala, elgarren etsai baitziren.

TEREXA: Biak etsai? Eta zergatik?

XANTI: Ba, badakizu ederki zuhaurek; Martxeli Beltzaren emazte zena atsegin izan zitzaiola. Beti hala izana da, emaztekarria!

TEREXA: Xanti! Zain-zazu zure mihia! Ez ote dakizu hilari errespetua zor dela? (*Patxik armarioa ideririk, hartzen du banda pila bat*)

XANTI: Bai, badakit. Bainan, erran beharrak erran behar dira beren mementoan. Eta emaztekarria zen ba, eta gainerat, auzi zalea! Ez deusentzat tribunalean! Bertzela, galda huni. (*Patxiri*) Zer diok, Patxi?

PATXI: (*Itzuliz*) Nere ustez, Beltza dela hobenduna! Eta bertzeen bizkarrera bota nahi izaitea holako tzarkerria, neri ezin onetsia zaut.

TEREXA: Eta Martxelen portefulla, nork kendu dio?

PATXI: Nik dakita?

TEREXA: Nolanahi, hura ez du haizeak eraman; bizkitartean ez da nihun ageri. Dena den, jujeak ongi egin du Ixidor preso sartzea!

PATXI: Zaude ixilik! Jujeak deus ez daki! Deus ez du ikusten... begietan banda bat baitu, bainan,

zaude gostuan, eroriko zaio. (*Horiek erraitean, eskuineko atetik ateratzerat doa, banda bat lurrean herrestan*)

TEREXA: Ez dakit jujeari eroriko zaion! Haatik, zuri bai. Ez duzu ikusten banda galduz zoazila?

PATXI: (*Banda bilduz*) Jujea buru gogorra da! (*Barne-tik Karmela oihuka: Patxi!*)

TEREXA: (*Patxi joan-eta*) Zer gizona hau! Nahasia iduri du. Alde batetik bertzerat beti kurri! Bainan ez dakit deus zuzenik egiten duenez! (*Patxi agertzen da, laguntzen duela kanpoko ateraino besoa bandatua duen gizon bat*)

PATXI: (*Joan denari*) Zoazi polliki! (*Anttoniri*) Orai zure aldi! Zato. (*Patxik ustegabeen, alxia jotzen du*)

ANTTONI: Milesker! (*Bertzeeri*) Agur! (*Biak gordetzen dira*)

TEREXA: Agur! Ez dut konprenitzen nola jaun medikuak gizon hori hartu duen mutiltzat! Mirakuiluz dago xutik.

XANTI: Horrek dituen lunetekin, gainerat! (*Ateko zirrintza. Patxi ateratzen da eta borta idekitzen du*)

MARITXU: (*Erdi nigarrez agertzen da*) Arratsalde on!

PATXI: Andere Maritxu!

TEREXA: Bai zuri ere! (*Xantiri*) Gaixoa! Zer planta!

MARITXU: Karmelari nahi nuke mintzatu.

PATXI: Berehala. Erranen diot hemen zirela. (*Badoa*)

TEREXA: Jar zaite, Maritxu!

MARITXU: Ai, Jauna! Akitua nago! Ez dut gehiago indarrik!

XANTI: Ez lotsa Maritxu! Denek badakigu zure senarra ez dela hobendun.

MARITXU: Eta beraz! Zer dituzte manera horiek?

XANTI: Nik lepoa eman nezake mozterat ez dela hura.

TEREXA: Segur gira jujea dela tronpatu! Bainan oro xuxenduko dira! Ez izi.

XANTI: Ixidor ez da holako tzarkeriarik egiteko kapable.

KARMELA: Maritxu! (*Besarkatzen du*) Zu hemen! Erran bezala, laster joango nuen zure xeka!

MARITXU: Berantetsia nuen... Barkatu! Hain da handia nere kezka! (*Ixilean mintzo dira. Patxi agertzen da Anttonirekin, kanporat laguntzen duela*)

ANTTONI: Agur deneri! Berriz arte!

BERTZEAK: Agur!

PATXI: Barnera, Xanti! (*Maritxuri begira, bere aldetik*)
Gaixo emaztea!

XANTI: Goazen ba. (*Badoa Terexarekin medikuaren bulegorat*)

MARITXU: O! Andere Karmela, bihotzetik otoizten zaitut. Zure anaiak salba dezake. Jujeari egin behar dion «rapport»-ean, eman baleza iduritzen zaiola Martxelek bere burua hil duela...

KARMELA: Guk bezala, ene anaiak sinesten du zure senarrak ez duela deus egitekorik afera hortan.

MARITXU: Orduan...

KARMELA: Bainan ez du horrek erran nahi, Martxelek bere burua hil duela. Ene anaiari ez zaio iduri holakorik gertatu dela. Horren erraiteak ez ditu denak argitzen.

MARITXU: Bai, horrekin denak garbi daitezke. Auzoen arabera Martxel ez zen uros bere emaztearekin. Sekulako samurgoak eta kalapitak omen zituzten senar emaztek.

KARMELA: Ez da harritzekoa! Elgarren amodiorik ez zuten ezagutu, diruarentzat ziren ezkondu.

MARITXU: Behazu, Karmela. Nik ez dut nehor salatu nahi; denak Joset Beltzaz mintzo dira. Erran-merran horiek susmo hutsak balin badira, zertako preso ezarri dute ene senarra? Ez da behine-

re hilaren etsai izana. Anartean hilaren etsaia hor ibilki da libro.

KARMELA: Bainan, Maritxu, itxura guziek zure senarra dute kondenatzen. Plazako ostatuan izan duten eztabaida... eta gainerat, hilak sahetsean sartua zaukan eztena, zapatain eztena, zure senarraren eztena. Kalapitan ari zirelarik, zure senarrak eskutan omen zuen delako eztena.

MARITXU: Ba, eta bertzeak kendu ere.

KARMELA: Bai, egia. Bainan, dirua... Ixidorrek ikusia omen zuen Martxel dirua portefullan emaiten ari.

MARITXU: Ixidorrek ez du holakorik erraiten. Eta gero, diru goseak ez gaitu behinere itsutu.

KARMELA: Txarrena hau da: Kalapitan ari ikusi dituzte eta Ixidorrek erran zion makil ukaldika garbituko zuela.

MARITXU: Hau lotsagarrikeria! Itxura batzuegatik gizon ohoragarri bat preso emana, eta gure familiaren omen ona zikindua! Eta nork daki...

KARMELA: Ez lotsa! Zure senarra libratua izanen da! Ez da dudarik.

MARITXU: Lehenbailehen agian! Hortakotz nik oxtion galdata da hoberena. Martxelek bere burua hil

duela, aski liteke zure anaiak erraitea bere erre-
portan. Otoi, otoi, galda-zozu hola egin dezan.
(*Barnetik eleak aditzen dira*)

KARMELA: Xo! Hemen da nere anaia! (*Agertzen dira
Terexa, Xanti eta Xabin medikua*)

XABIN: (*Goxoki*) Nik erran dautzudana eta besterik ez.
Aditu duzu?

XANTI: Bainan, bainan, esne hutsa!

XABIN: Esne hutsa eta besterik ez. Agur!

TEREXA: Ez adiorik. Nere kontu utz hori!

XANTI: (*Bortari buruz joanez*) Nik pasa behar dudan
gosea!

MARITXU: Xabin jauna! Otoi, Jainkoaren izenean!

XABIN: Badakit zertara jina ziren! Bainan hori ezin dai-
tekena da!

MARITXU: Zu, hain ona zirena...

XABIN: Hori da! Ona naizela-eta, ontsa zautzu nik
gezurra erraitea, hil baten oroitzapena zikin-
tzea... eta nere burua saltsan sartzea?

MARITXU: Bere burua hil duelako zertifikata eginez, ez
diozu nehori kalterik egiten.

XABIN: Bere burua hiltzea ez dea bekatu? Nola erran
nezake bekatuan hil dela Martxel?

MARITXU: Egokiago zaizu hobenik gabea kondentzea?

XABIN: Emaztekia! Oraino ez da jujatua. Auzia xuritze-koa da, eta ez dakigu zer aterako den. Nolanahika ere, ni segur naiz zure senarra libro aterako dela.

MARITXU: Eta anartean?...

XABIN: Gaur berean zure senarra libro uztea nere esku balitz...?

MARITXU: Erraiten bazinu...

XABIN: Zer? Zer erran nezake? Erran dut erran behar guzia.

MARITXU: Ez zaitut konprenitzen.

XABIN: Horra bi gau ez dudala lorik egin, delako zertifikata nola behar dudan itzuli gogoetatua nago-la.

MARITXU: Beraz dudan zaude?

XABIN: Bai. Hala da. Segur naiz zure senarrak ez duela deus ikustekorik afera hortan. Gainerat nere arreba hor ari zait erran eta erran salba dezadan. Libratzen ahal banu! Eta horiek oro zertako? Bertzeen pena eta buruhaustek nerek baino barnago hartzen ditudalakotz.

KARMELA: Horrengatik zira hain ona, Xabin.

MARITXU: Bai. Eta horrengatik dautzut nik ere galdegiten lagun gaitzazun ateka hortarik jalitzen.

XABIN: Bainan nik ez dezaket gehiago egin.

KARMELA: Deusik egin duzu bederen?

XABIN: Ez duzu ba ikusten? Zerentzat uste duzu bada, ez diodala oraino jujeari eman delako zertifikata? Alta hura ere galde eta galde ari zaut. Zuek nahi duzuen gisakoa eman banio, ez zuen onartuko.

KARMELA: Erramunek ez zuela onartuko?

XABIN: Ez. Nihaur hasi naiz hedatzen fama, baizik eta bere burua hil duela Martxelek, ikusteko nola hartzen duen jendeak. Bainan holakorik ez daiteke; zauriaren lekua ikustea aski da. Halere hori diot, zeharka adieraztera eman diot Erramuni, Ixidorren salbatzeko. Bainan...

KARMELA: Eta zer erran du Erramunek?

XABIN: Laster konprenitu du eta huna zer erran dautan: «Arras ona zira, jaun medikua! Hobengabea daukazun gizon baten salbatzeagatik, zer egiterat zoaz? Kolorerik ere ez duena finkatuz, zure omena galtzerat zoaz, eta zure mediku eginbideari huts egiterat. Bainan nik ez zaitut segitzen ahal bide hortan. Nere eginbidea da

egia aurkitzea, hobenduna gaztigatzea. Eta beraz zure zertifikata gisa hortan egiten baduzu, hilaren gorputza lurretik atera araziko dut eta bertze mediku zonbeiti miaraziko.»

KARMELA: Bainan, Erramun gure laguna da!

XABIN: Afera hortan ez da jujea baizik.

MARITXU: Karmelak galdatzen diona egingen du. Guziek badakigu osoki maite zaituela!

KARMELA: Nik galdatuko diot, Maritxu.

XABIN: Ez zuregatik, ez nehirengatik, ez du deus egingen Erramunek bere eginbidearen kontra. Ez dugu bide horri jarraiki behar.

MARITXU: Zoin da ba bide hori?

XABIN: Hiltzale bat izan denaz geroz, hiltzalea xekatu behar da.

PATXI: *(Eskuineko bortatik bere burua sarturik eta kexu)* Zer balio du xekatzea? Gauza hain garbia eta ageria den pondutik...

XABIN: Patxi!

PATXI: Harriek berek ere ez ote dakite Joset Beltza dela Martxelen hiltzalea?

MARITXU: Hura bera da, ba. Sinets nezazu Xabin jauna... *(Hau erraitearekin, ezkerreko bortatik Joset Beltza agertzen da. Azken hitzak entzuten*

ditu, besoak kurutzaturik, hitz motelez erraiten du)

BELTZA: Ez nintzen hobeki erortzen ahal!

PATXI: *(Izitua)* Beltza!

MARITXU: *(Izitua, bere buruarekin)* Entzun nau!

XABIN: Arratsalde on, Beltza. *(Joset Beltza gizon mokorra da, eta erdi mozkorra da)*

BELTZA: Hain xuxen, afera hortaz zurekin mintzatzerat jina naiz, zeren zu jaun medikua, gizon zuhurra baitzira.

XABIN: Enekin mintzatzerat...?

BELTZA: Bai jauna. Andere hunek diona, herri guziak ere erraiten du. *(Patxiren alderat behatuz)* Eta zonbaitek ari dute berri hori hedatzen.

PATXI: Nik ez! Nik ez...

XABIN: Beltza.

BELTZA: Berak erraiten...

MARITXU: Nere senarra ez da hobendun.

BELTZA: Hori zuk diozu...

MARITXU: Herri guziak ere nik bezala. Ez ahal duzuia zuhaurek doidoietan hori aitortu?

BELTZA: Hortakotz dut jaun medikuarekin mintzatu nahi.

XABIN: Eta... zendako enekin?

BELTZA: Badakit jauna ez duzula zuk hori hedatu ene kontra. Bainan badakit ere ene kontra kurritzen diren solas horiek zuk desegiten ahal dituzula.

XABIN: Ez zaitut konprenitzen...

BELTZA: Beha zazu. Gure herri huntan ez da nehore zure errana untsa hartzen ez duenik, gizon saindutzat atxikitzen baitzaitute denek. Hortakotz, zure hitzak baduelakotz holako indarra, ene kontra hedatzen ari dena, nahi nuke zuk finka dezazun ene kontra dabiltzan eleak ez direla egiak. Hobengabearen salbatzea ez dea ere haizu? Hori egin-zazu, Xabin jauna, nahi baduzu zuzenenik dena sustengatu. Orai arte ez dut nehore hil. Bainan ixilik, begi zeharkatu eta eriaz erabiltzen banaute, baizik eta hiltzalea naizela, orduan ez da errana ez naizela egiazko hiltzale bilakatuko, ezen ene pazientziak ere badu izari bat.

XABIN: Bego, bego Beltza. Izan zaite trankil. Arras berotua zira.

KARMELA: Ba, sobera berotua!

BELTZA: Zer erran nahi duzu? Sobera edan dudala? Badaiteke. Bainan ene kasu huntan atsekabea zerbait gisaz ito behar dut...

XABIN: Untsa da Joset. Zoazi eta egon gostuan.

BELTZA: Nere lanera noa. Karrika berriko etxearen finitzerat. Hori izanen da herri huntako ene azken lana, hori egin-eta hemendik aldegitrat bainoa. Ez dut nahi beltzale batzuen arte bizi. Beharrik aldamuak kentzea aski dut bakarrik. Eta kasu denek! (*Sartu aldetik, badoa. Denak, ixilik, harrituak, elgarri begira ixtant bat*)

PATXI: Urde beltza!... Neretzat segurik ez da dudarik. Horren bisaia ikustea aski zaut. Hori da, bai...

MARITXU: (*Nigarrez*) Ai, ai! Gure haurrak! Gure etxea!

KARMELA: Xo, Maritxu, xo!

PATXI: (*Leihotik begira kanporat*) Xabin jauna! Jujea heldu da!

XABIN: Eh?

KARMELA: Erramun?

PATXI: Bortan da!

XABIN: Patxi, zoaz zigarroak erosterat.

PATXI: Ontsa da. (*Penaz badoa ezkerretik*)

ERRAMUN: Arratsalde on.

BERTZEAK: Bai zuri ere!

ERRAMUN: (*Banazka salutatzuz*) Andereño... anderea... nola zira Xabin?

XABIN: Ontsa... milesker; jar zaite!

ERRAMUN: Bon; jaun medikua, gaurko behar dut baitzpada zure zertifikata!

XABIN: Sinets nezazu. Egungo lanak ez daut astirik utzi deusetako.

ERRAMUN: Ez da bihotz ona baino maiteagorik deus! (*Irriz*) Ah! Uste duzu ni enganatuko nauzula! Ez! Badakit nolakoa den zure desira, Xabin! Bainan hori ez daitekena da, adixkidea! (*Xutitzen da*) Iduritzen bazaizu, aiseago mintza gaitezke zure bulegoan. Nekagarri zait arrazoin batzuen emaita jenden aintzinean.

MARITXU: Ez, jauna, ez. Otoi mintza zaitezke hemen, nere aintzinean.

ERRAMUN: Bai. Bainan...

MARITXU: Ahantzia duzuia beti gure adixkidea izan zirela.

ERRAMUN: (*Berriz jarri-ta*) Jukeek ez dezakegu bertzeek bezalako bizi molderik izan. Bakarrik behar dugu bizi, lagunik gabe.

KARMELA: Zergatik? Zerentzat?

ERRAMUN: Sekulan, gure baitan nehork ez dezan ikus laguna, adixkidea edo haurridea! Ez da behinere atsegin lagun baten preso emaita. Ni, orai, jujea baizik ezin izan, horra legea! Adixkideta-

sun a eta amodia zer diren ez dakien legea, lege itsua. Eta bihotza ezin ixilaraz! Egitateari begiratu eta jujatu behar da: Inkesta egin-eta, froga guziak bildu-eta. Zorigaitzez, orai arte zure senarraren kontra dira itxura guziak: Ber-tze frogarik ez dut aurkitu.

MARITXU: Bainan, badakizu nere senarra Martxelen adixkidea zela!

ERRAMUN: Horrengatik ba! Adixkidea zelakotz galda-tu ziozkan ehun mila libera prest! Ordu berean ikusia zuen Martxelek ehun eta berrogeita hamar mila libera portefullan ezartzen! Adixki-de zelakotz du Martxelen ezetzak haserretu Ixi-dor. Gero elgarri gaizkika arizan dira! Eta Ixido-rrek agertu zapatagintzan dabilkan eztena... Martxelen gorputzari josia atxeman den eztena bera. Portefulla berriz, ez zen hilaren sakelan!

MARITXU: Beraz, uste duzu...

ERRAMUN: Nik bilatzen dut nori zitaken balia krima hori. Itzul-azu afera hori harat edo hunat: Nere uste guziek zure senarrarenganat ekartzen naute.

MARITXU: Jainko maitea!

ERRAMUN: Mendekuz egin ote du? Ala kolera kolpean!

Ala diru gosez? Portefulla segurik ez da ageri.

MARITXU: Bainan, ene senarra gau hortan...

ERRAMUN: Kasu! Kasu! Badaiteke gauak duen gehienik konprometitzen! Ez dauku erran ahal izan, nun ibili den gau hartan...

MARITXU: Nola ezetz? Ostatutik segidan etxerat jin zitzaidan, eta dena kondatu. Gero, zainak airean zituela, burua freskatzerat atera eta azkenean Xabin jaunaren etxerat etorri. Karmelak erran zion medikua joana zela fabrikako langile baten etxerat.

KARMELA: Bai, egi-egia da!

MARITXU: Eta orduan, ez jakin zer egin, hor ibili da karrikaz karrika.

ERRAMUN: Bai, hori bera erran du, eta hori da ba txarra; nola froga non ibili den?

MARITXU: Orduan... galdua da! Xabin jauna, Xabin jauna, salba gaitzazu! (*Medikuaren besoetan nigarrez*)

XABIN: Ez izi! Ez gal kuraia! Ixidorrek ez du hobenik eta Jainkoak salbatuko du.

KARMELA: (*Jujeari, aparte emanaz*) Erramun... Erramun maitea! Segur naiz ez dela Ixidor hoben-

dun. Fagore handi bat galde egin behar dautzut... Lehena... beharbada nere bizian galdatuko dautzudan bakarra.

ERRAMUN: Errazu, atsegin nuke...

KARMELA: Salba zazu gizon hori!

ERRAMUN: Salbatu? Nola?

KARMELA: Daiteken bezala. Bere burua hil duelako froga onartuz, bertzela ez baidaitেকে.

ERRAMUN: Ez niri holakorik aipa, Karmela.

KARMELA: Zertako ez? Ez dautazuia erran maite nauzula?

ERRAMUN: Eta maitasun horren izenean, zuk galdatzen dautazu ene eginbidearen ostikatzea!!

KARMELA: Amodio handia denean...

ERRAMUN: Amodio horren frogarik ageriena, emaiten dautzudan ezetza da.

KARMELA: Erramun! Erramun! Jainkoaren izenean...

ERRAMUN: Karmela! Ez nezazula behar gabe sofriarazi! Juea besterik ez naiz, eta nahiago nuke ez izan. (*Xabini*) Legearen izenean jin nitzaizu. Sarriko behar dut papera... Agur! Jainkoak atera gaitzala ateka huntarik. (*Badoa*)

MARITXU: Bai! Gutaz urrikal bedi! Eta zaint gaitzala!

KARMELA: (*Xabini*) Zer egin ginezake, Xabin?

XABIN: *(Trixterik)* Ez dakit, hori, ez dakit!

MARITXU: Banoa, Karmela. Barkatu!

KARMELA: Lagunduko zaitut, Maritxu!

MARITXU: Milesker, guziengatik, Xabin jauna. Agur.

XABIN: Gero arte, Maritxu. Pausa zaite eta ez lotsa!
(Karmela eta Maritxu badoaz. Xabin bakarrik, jarrita, gogoetatua. Paper bat sakelatik ateraturik, begiz irakurtzen du, artean erranez) Paper hunek salba zezaken. Gaixo gizona!

PATXI: *(Zigarro kopa bat eskuan, sartzen da arras airean)* Azken berriak, Xabin jauna!

XABIN: E?

PATXI: Ba... ba... *(Jartzen da)* Plazan oro airean dira...

XABIN: Zertaz?

PATXI: Joset Beltzaren kontrako froga bat badela.

XABIN: E? Beltzaren kontrako froga?

PATXI: Ba jauna, ba! *(Ahapeka eta kanporat begiratu)* Joset Beltzak hil du Martxel!

XABIN: Bon, bon... errazu lehenbailehen dakizuna.

PATXI: Borda Beltzak bi mila libera galdu ditu jokoan.

XABIN: Eta gero?

PATXI: Billet bat, Martxelek hil den gauean portefullan zaukatena da.

XABIN: Eta hori nola dakizue?

PATXI: Agerreko Jakesek ezagutu omen du. Gau hartan Martxeli irina pagatzeko eman zionaren berbera omen da.

XABIN: Eta mila liberakoa ezagutu?

PATXI: Bai. Billetean hitz hauek omen ziren: «Agur, ez haut gehiago ikusiko!»

XABIN: Holakoak ardura ikusten dira!

PATXI: Bai, bainan, letra bat makur emana zen, edo hobeki erraiteko eskas, «haut», «h» gabe. Jakesek Martxeli eman billet berbera dela dio. (*Karrikan jendearen murmurika bizia*)

XABIN: Zer gertatzen da oraino?(*Patxi badoa leihorat ikusterat eta galdatzerat*)

PATXI: Zer da hor?... Ez dakit zer den; zernahi jende heldu da. Xantik erran daut sartzen dela.

XANTI: (*Arrabots handirekin sartzen da*) Joset Beltza!

XABIN: Zer? Hil dute bederen?

XANTI: Ez, bere burua hil du.

XABIN: E?

PATXI: Nola?

XANTI: Karrika berrian egiten ari zen etxeko xefaute-tarik erori da, lerratu-eta. Edana zen!

XABIN: Jauna! Goazen Patxi.

XANTI: Ez zaitela joan, hunat ekarki dute. Nik ez dut lagundu, ez baitaukat indarririk.

XABIN: Zoazi Patxi, eta polliki ekar dezatela. *(Patxi badoa laster)*

XANTI: Hola hil beharra zen alimale bat zen! Egiazko alimalea. Harek hila zen Martxel, harek ebatsia dirua. Badakizu, dudarik gabe, billetaren ixto-
rioa? *(Xabinek baietz buruarekin)* Portefulla erre eta kito! *(Atean eleak)* Hemen dute.

XABIN: *(Atean)* Polliki! Polliki! *(Hiru gizonek eta Patxik, Beltzaren gorputza ekartzen dute odoleztatua, zikindua)*

PATXI: Hunen karga!

XABIN: Ezar-azue alki hortan! *(Foltsua hartzen dio eta miatzen du)*

XANTI: *(Patxiri)* Bizi ote da?

PATXI: Ez zait iduri.

XABIN: Foltsua ibiliki zaio oraino, arras flako haatik.

XANTI: Hezurak ez dituzke osoak! Erori den lekutik.

XABIN: Kasko hezurra hautsia duela, uste dut. Bon, zoazte eta abisa-zazue jujea.

XANTI: Nik eginen dut. *(Badoa)*

XABIN: *(Beltzaren oinetan belauniko)* Hiltzerat doa! Patxi! Koramina pikura prepara-zazu. Bihotzak

doidoia jotzen dio. *(Patxi badoa)* Dena alferrik!
Eta Ixidor salbatzeko azken esperantza hunekin
joan! Bai... *(Beltzak hasperen bat)* E! Joset! Ez!
(Ixilik ixtant bat. Xutitzen da, kopeta ilun) Ez!
Ez! Jauna, zer heldu zaut gogora?... Bainan...
(Berriz Joseti hurbil ukurtua) Iduri du hatsik ez
duela. *(Kexu)* Hunek ez du emazterik, ez hau-
rrik... Denek bazakiten nola bizi zen... Eta
beharbada... hau izan da... Jauna! Jauna! Iziga-
rria da ene gogoeta... ala zuk igorria? *(Berriz
Joseten ondoan belauniko)* Ez, ez, ez. Ez du
hatsik hartzen!

KARMELA: Xabin! *(Maritxurekin sartzen da)*

XABIN: *(Ikaratua)* Zer? *(Oihuka altxatzen da iduri ero-
tua)* A!

KARMELA: Xabin, zer duzu?

XABIN: *(Kalमतua)* Deusik. Ez da deus egitekorik.

MARITXU: Erramun laster hemen da. Gure ondotik
heldu zen.

ERRAMUN: Zer gertatu da?

MARITXU: Ikusten duzu. Zorigaitzez erori da!

XABIN: Ez dakit. Ez naiz gehiago nere buruaren jabe.
Oraintxet erran dautanak erdi xoratua nago.

ERRAMUN: Zer erran dautzu?

XABIN: Berak hil duela Martxel.

MARITXU: Jainko maitea!

KARMELA: Jesus! *(Bi emazteak besarkatuak. Erramun Beltzari begiak josiak)*

XABIN: *(Aintzinerat heldu da, begiak goiti besoak zabalik)* Barka Jauna! Barka!

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

(Patxi ate xilotik begira, zelatan)

PATXI: *(Burua xut)* Hortan arrazoin du, bai. *(Berriz ukurtua)* E? *(Irria itotzen duela)* Ba, arrazoin! Hori gauza atsegingarria.

ANTTONI: *(Sartzen da)* Arratsalde on!

PATXI: *(Gogo txarrez, bere aldetik)* Gauzarik interesantena aditzeko mementoan...

ANTTONI: Xabin jauna etxean da?

PATXI: *(Zakarki)* Bai. Bainan orai ez daiteke ikus, kontsulta tenora pasatua da.

ANTTONI: Bai... bainan...

PATXI: Bai, bai. Badakit nor zaitudan, bainan medikua... zera... ixtudiatzen ari da. Eta erran daut ez duela nehor ikusi nahi.

ANTTONI: Bai, konprenitzen dut. Ni urrundik heldu bainaz eta...

PATXI: Badakit, bainan zer egin. Zato bihar!

ANTTONI: Ene kontua pagatzerat heldu nintzen.

PATXI: E? *(Goxokiago)* Hori besterik da. Jar zaite, otoi. Berehala hemen da. *(Anttoni jartzen da. Ixidor eta Xanti sartzen dira, Xanti ahulago, Ixidor,*

*gizon gozo, prestu bat; paper andana bat bil-
duak dauzka eskutan)*

IXIDOR: Agur Patxi.

PATXI: To, Ixidor. Nola haiz mutikoa? Kartzelan baino hobeki?

IXIDOR: Ba, mutil. Bertzerik duk libro izaitea! Zer gauza ederra, libertatea. Beha-zak, Patxi. Jadanik baditiat lau ehun sinadura bilduak.

PATXI: Lau ehun! Ez duk gaizki.

IXIDOR: Mixel bolanjerak oraintxe sinatua dik. Oren laurden bat han egonak gaituk.

XANTI: (*Jarririk, nekatuaren gisan*) Bai, mutil. Oren laurden bat ogi erre berriaren usain ona sudur xilotik xurruptatzen! Eta esne hutsez bizi behar! Suiza eta Holandaren izenik ez diat aditu nahi ere. Esnea ikusi ordu, tripa gur-gurka hasten zaitak. Ez diat zigarreta bat egiteko indarririk ere.

PATXI: Bon! Indarririk ez dukala eta atzo Juantxori eman diokan beharrondoko hura!

XANTI: Barkamendu galdatu zioat. Alta haren falta zuan! Esne hartu berria ninduan, eta hor heldu zaitak: «Errak, Xanti, haugi enekin merkaturat. Lagundu behar nauk behiak hautatzen». Behiak

ikustera! Ni kexatu eta ez guti. Hala duk! Behiak ikustera!

PATXI: Ezagun dik hobeki haizela; hire estomaka sendatzen ari zaik. Badakik zer zion medikuak atzo? Heldu den hilabetean arrotze bat eta arrain pixka bat jaten ahalko dukala.

XANTI: Bertze hilabetean. Ah! Uste dik ordu arte bizi-ko naizela? Ai, ai, ai. Egun hilabeteko hirua! Heldu den hilabetean lurpean izanen nauk xardin xaharra bezain idor.

PATXI: Ba, ba.

XANTI: Egia, Patxi. Iduritzen zaitak gorputza puskaka galtzen ari naizela. Bidean noalarik, ardura gibelerat so egiten diat: Iduritzen zaitak han hemenka barreiatzen ditudala besoa, zangoa...

IXIDOR: *(Patxiri, Anttoni erakutsiz)* Xabin jaunaren klienta duk?

PATXI: Bai... Zer nahi diok, sinatzea galdatu? *(Ixidorrek baietz)* Errazu, anderea, nahi zinuke sinatu paper huntan?

ANTTONI: Ez.

XANTI: *(Harritua)* Zer? Nola?

PATXI: Bainan, ez diogu erran ere zer behar duen sinatu. Behazu anderea. Prefetari egiten diogu

galde bat, «Légion d'honneur» eman dezaten jaun medikuari, Joset Beltzari egin dionarengatik. Ontsa merezi baitu.

ANTTONI: A, bai. Joset Beltza, Martxelen hiltzalea!

IXIDOR: Bai, hura bera.

XANTI: Hemen berean aitortu zuen bere krima, ustez eta hiltzerat zoala.

ANTTONI: Eta, egia da sendatu dela?

PATXI: Ba. Hortakotz ba egiten dugu galde hori. Xabin jaunari esker bizi da. Odola eman behar zitzaion, eta kriminel horrentzat nehork ez eman nahi. Orduan medikuak bere zainetako odola eman dio, eta ausarki, bere burua hiltzeko irriskuan emanik.

ANTTONI: Egiazko saildu bat da Xabin.

PATXI: Eta horrentzat nahi genioke kurutzeta izan arazi.

ANTTONI: Ontsa da, gutiagorekin bildu dute frangok.

PATXI: Beraz sinatuko duzu?

ANTTONI: Ez, jauna!

IXIDOR: Bainan, zerentzat ez?

ANTTONI: Ez baitakit sinatzen.

PATXI: Jesus Maria! Erran bazinu lasterrago...

ANTTONI: Errazu, eta Joset Beltza preso da?

PATXI: Ospitalean da... bainan preso. Berak ez daki deusik; ez dezan burua gal, ez diote nehork deus aipatzen.

ANTTONI: Hori, hori gaitza da. Hiltzerat zoana lagundu, sendatu, eta zertako? Gero, osasunerat etorri-eta, hiltzeko. Gaizoak hobe zuen bere ohean hil balitz!

IXIDOR: Harentzat ba, bainan ez denentzat. Dudarik ez dugu hiltzalea dela, azken hatsetan zelarik aitortu baitzuen. Oren latz hortan, ez baita gezurrik erraiten. Guzleri ontsa zaigu Beltza sendatzea, pondu zonbait argi ditzan eta hobengabeak ez ditzen hobenduntzat hartuak.

PATXI: Bai.

IXIDOR: Polizak miatu du Beltzaren etxea, bainan ez harrapatu portefulla. Hortan da makurra. Eta billetean izkribatua zenaren ixtorioa ez zait aski argi. Nik nahi dut dena argitzea, bertzela beti susmo bat egonen da nere kontra, eta nik ez dezaket sofri ene familiaren omena hola goibeldua ikustea. *(Eskuineko atetik Karmela eta beltzez jantzita emazte bat agertzen dira eta badoaz kanpoko ateari buruz)*

PATXI: *(Bere laguneri)* Hau duzue Martxelen alarguna.
(Anttoniri keinu egiten dio eta gidatzen du medikuaren bulegorat)

KARMELA: Nere anaiaren griña ongi konprenitzen dut.
(Bi emazteak eleketa bortan)

PATXI: *(Xantiri)* Gustatu zaik alarguna? Ontsa duk, e?

XANTI: Pxxxi!

PATXI: Etzaik gustatzen?

XANTI: Mutikoa, ene flakiak ez zaitak pentsatzeko indarririk ere emaiten.

PATXI: Hi, galdua haiz!

IXIDOR: *(Berriz heldu den Karmelari)* Nola da zure anaia?

KARMELA: Beti kexuago, zainak airean. Lo ere nekez egiten.

IXIDOR: Gaixo gizona!

KARMELA: Eta Maritxu?

IXIDOR: Ontsa. Geroxago biak jinen gira.

KARMELA: Ederki. Ontsa estimatzen dut haren lagun-tza.

XANTI: Ikusi dituzu bildu ditugun sinadurak, Karmela?
(Medikua eta Anttoni agertzen dira)

ANTTONI: Barkatu, jaun medikua, kontsulta ordutik kanpo jin banitzaizu.

XABIN: Ez da makurrik, nere etxea beti idekia da.

ANTTONI: Ba, hemen... gazte hunek... debekatu nahi zaitan. Hor barnean mintzo zinetelarik, zelatan zagon jin naizenean...

XABIN: E?

PATXI: *(Beretzat)* Atso debru zaharra!

ANTTONI: Bon, agur jaun medikua eta milesker.

XABIN: Agur anderea... Ai Patxi, Patxi!

PATXI: *(Lotsatua)* Ni... ni, Xanti eta Ixidorrekin banoa sinadurak eremaiterat. Bagoaz?

IXIDOR: Ba, goazen. *(Patxik, bixta labor baitu, eta laster joan nahi kaderak jotzen ditu)*

XANTI: Ai, Xabin jauna! Ez ote dut behinere pokada bat janen?

XABIN: *(Jartzen da)* Ez zaitela zure buruaren etsai izan! Mementoa etorri-eta, janen duzu.

XANTI: Bon... bon... Gero arte. *(Ixtant bat ixilik)*

KARMELA: *(Xabini hurbiltzen zaio ixilik eta amultsuki)*
Zer duzu, Xabin?

XABIN: Ez dakit. Zonbait aldiz heldu zauzkitzu arrazoi-nik gabeko trixturak. Zuk ere, iduri duzu egun hautan kexu zabilzala.

KARMELA: Zu hola ikusteak kezkatzen nau. Anaia zaitut... eta aita bazina bezala maite zaitut.

XABIN: Egia. Arreba baino alaba zaitudala erran neza-
ke. Zure geroak griñatzen nau. Nahi zintuzket
ontsa ezkondua ikusi.

KARMELA: Zer?

XABIN: Bai, Karmela! Ni zahartzen ari naiz, eta arras
akitua kausitzen dut nere burua.

KARMELA: Emazu hortik! Oraino gazte zira, Xabin!

XABIN: Erramunek maite zaitu.

KARMELA: Ez neri holakorik aipa!

XABIN: Zerentzat ez?

KARMELA: (*Kexu*) Ez dakit...

XABIN: Bon. (*Xutitzen da*)

KARMELA: Atera behar duzu?

XABIN: Ospitalera joaitekotan nago, ikusteko zertan
den eria.

KARMELA: Erramunek goizean ikusi omen du. Senda-
tua dela erran daut.

XABIN: Bai.

KARMELA: (*Anaiari begi-begira*) Tronpatu zinen, hil-
tzat utzi zinuelarik.

XABIN: (*Beti kexuago*) Bai, egia da! Bainan nehork ez
dezake erran ez ditudala eginahalak egin haren
salbatzeko.

KARMELA: Hori denek badakite. Eriaren ondotik ez zira urrundu heriotza garaitu arte.

XABIN: Garaitu! Um! Nere eginbidea ongi bete dut, nere ustez. Bertzerik erraiten duena balitz... ustel bat liteke.

KARMELA: (*Ikaratua*) Erotzen ari zira? Zendako hola kexa?

XABIN: Bai. Garbiki erran behar dut, nehork pentsa ez dezan...

KARMELA: Xo, Xabin. Pausa zaitetz.

XABIN: Joset Beltzak hiltzerakoan aitortu zautana, nik agertu dut, bai. Bainan, ez zautan hortako bai-menik eman. Eta orai, erran dezake nik galdu dudala. Nik salbatu dut, heriotzatik salbatu... eta halere heriotzarat daramat, nik berriz. Beltzak ukatuko du, erranez ez duela bere buruaren kontrako aitormenik egin... nik gezurra erran dudala... haren izena zikindu dudala.

KARMELA: Bainan, segur zira?

XABIN: Bai, bai. Bainan, nik ez dezaket haren burua irriskuan utzi. Hori ez!

KARMELA: Egin zinuena, inozent bat salbatzeko egin zinuen.

XABIN: Bertzea kondenatuz, e?

KARMELA: Zer?

XABIN: Ez dakit gehiago zer diodan.

KARMELA: Xabin!

XABIN: Ez dezala behin ere Beltzak jakin salatu dudala. Ez dakit nola ihardoki buru gainerat helduden zorigaitzari. Orai arte erran dut eriak ez zuela deklarazionerik egiteko ahalik. Bainan, orai... Erramun ene ondotik dabila, noiz egiten ahalko duen galdezka... *(Bozak, eleak kanpotik)*

KARMELA: Xo!

XABIN: Zein?

KARMELA: *(Ezkerreko atera hurbilduz)* Erramun jujea!

XABIN: Ez dut ikusi nahi... Banoa hemendik. Errozu karrikan naizela... alde egin dudala... nahi duzuna... bainan geriza nezazu, Karmela!

KARMELA: Bainan, luzamenak eman ez duzu deus irabazten.

XABIN: Nik dakita zer egin? Kriminelak bere baitarik ihes egiten du, eta...

KARMELA: Kriminela! Zu zira kriminela?

XABIN: Batzuetan, iduritzen zait hala naizela. *(Gordetzen da)*

KARMELA: Zer da hau, Jauna! Beharbada... ez, ez.

ERRAMUN: Arratsalde on!

KARMELA: Bai zuri ere.

ERRAMUN: Ontsa zirea?

KARMELA: (*Kalme agertu nahi du*) Ez da makurrik.

ERRAMUN: Eta anaia?

KARMELA: Oxtion jalia da etxetik.

ERRAMUN: E?

KARMELA: Jalia dela.

ERRAMUN: Kontu! Jujearekin mintzo zira, eta gaizki-deak gaztigitzen dira.

KARMELA: Ez dakit zer erran nahi duzun!

ERRAMUN: Zure anaia etxean dela, zuk ukaturik ere.

KARMELA: Erramun...

ERRAMUN: Bihotz onak, federik hoberenean irriskuan denaren alde jartzen dira beti. Bainan holako egitateak debekatzeko, asmatu behar izan dira bihotz gabeko gizonak: Jujeak, urrikalmenduari gogor egiteko obligazionea dutenak.

KARMELA: Ez dirot konpreni zure erranaren mamia.

ERRAMUN: Behazu, Karmela. Zure anaia iheska dabilkit, Joset Beltzari deklarazionea hartzen ahal diodala erraiteak min emaiten baitio. Ez duzu konprenitzen.

KARMELA: Ba. Eta ez naiz batere harritzen.

ERRAMUN: Ez dut ikusten zertako ari den hola. Goiz edo berant, eta nere ustez laster, Joset aterako da ospitaletik sendatua sekulako.

KARMELA: (*Irriz*) Ez nuen uste jujeek hoin bihotz gogorra zutela.

ERRAMUN: Nere buruari askotan gauza bera erraiten diot.

KARMELA: Mintza gaiten garbiki. Ez zaizu iduritzen zuzenki ari dela nere anaia? Ez dea ontsa berak zaindu duen eria salba nahi izaitea?

ERRAMUN: Bai, emaztekoa, bai! Nik ere, haren orde, mediku banintz, berdin egin nezake. Joset Beltzak bere krima zure anaiari aitortu zion, eta zure anaiak erran. Nor da salataria? Zure anaia, gauza ageria. Gero gauzak nahi ez bezala gertatu dira. Beltzak ez zuen uste salbatuko zela, bainan... Eta nik zer egin dezaket? Legeak...

KARMELA: Legeak! Legeak! Ez duzu bertze hitzik mihi puntan!

ERRAMUN: Nere eginbideak emaiten daut ezpainenetan. Konprenitzen dut zure anaiaren oinazea. Berak salatuak galdu du hoinbertze gosta zaion gizon horren bizia! Bainan ni, ez naiteke egon kriminela aditu gabe, galde batzu egin gabe.

KARMELA: Eta Beltzak erran baleza ez duela deusik aitortu?

ERRAMUN: Hiltzerakoan aitortu zuen, eta oren hortan ez da gezurrik erraiten. Beltzaren ukatzeak ez du deus sanjatuko.

KARMELA: Bainan...

ERRAMUN: Ukatzea da kriminelen ihesbidea. Bainan afera huntan bezalako froga bat delarik...

KARMELA: Froga bat?

ERRAMUN: Zure anaiaren hitza, dituen izena eta omenarekin, ez zaizu froga bat dela? Holako afera seriosean zure anaia gezurrean ari dela nork sinets lezake?

XABIN: (*Xuri-xuria, eskuinetik agertzen da*) Eta gezurra erran badut?

KARMELA: Xabin!

ERRAMUN: (*Irriz*) Segi hola hola! Berriz ere duda sorarazi nahi duzu nere gogoan. Ba ala ez? Ontsa badakit zure berri, eta nehor ez da alde huntan zutan konfientziarik ez duenik.

XABIN: Ba, bainan...

ERRAMUN: Xabin jauna, bihotz onak neurri bat behar du.

XABIN: Bainan, gizon hori hobendun ez balitz...?

ERRAMUN: Bertze bat baliteke. Justiziak argitaratu dezakena da. Kriminelak legearen zigorra merezi du.

XABIN: Bai, arrazoina duzu. Hemen, zigorra merezi duen hobenduna bada... Beltzari mintza zaitezke!

ERRAMUN: Milesker, banoa abian.

XABIN: Zoazi lehenbailehen, atera gaiten ateka huntarik.

ERRAMUN: Agur. Gero arte.

XABIN: Jauna! Jauna! (*Jartzen da akitua bezala*)

KARMELA: (*Xabinen aintzinean belauniko*) Xabin! Zer gordetzen dautazu?

XABIN: (*Burua eskuetan*) E?

KARMELA: Zer gordetzen dautazu? Erradazu! Otoi!

XABIN: (*Xutituta*) Orai ez! Xo! Norbait heldu da! Gero! Gero!

KARMELA: Bainan...

XABIN: Xo!

KARMELA: Maritxu eta Ixidor dira!

XABIN: Orduan erranen dut! Horien aintzinean erran dezaket, eta baitezpada erran behar dut. (*Maritxu eta Ixidor agertzen dira*)

MARITXU: (*Karmelari musu emanetz*) Arratsalde on!

IXIDOR: Erramunek erran dauku Beltzari galdaketa egiteko baimena eman diozula!

XABIN: Bai.

IXIDOR: Gaizo Beltza! Ez bada oroitzen erran duenaz, harek hartuko duen kolpea!

MARITXU: Eta zuk pagatu behar izan bazinu bertzeengatik.

IXIDOR: Hori ere... ez da ona! Xabini esker ez da holarikorik gertatu. (*Xabinek begiak xukatzen ditu*) E? Zer duzu? Zer gertatu zaizu, Xabin? Nigarrez ari zira?

MARITXU: Zer du Karmela?

KARMELA: Ez dakit...

XABIN: Ikaragarria... Ezin sinetsia... Segur naiz ez dela hura kriminela.

IXIDOR: E?

XABIN: Joset Beltzak ez daut deus aitortu, hil hurrana ekarri zautatenean. Ez daut hitzik erran. Denak nere buruak asmatuak izan dira! Zer egin dudan!

IXIDOR: Alo! Alo!

MARITXU: Jesus! Maria eta Josepe!

XABIN: Debrua, zirikan ari zitzaitan... Gogor egin diot. Bainan, azkenean amor eman! Zu salbatu nahiz

gezurrezko salatze hori asmatu dut. Denak Joseten kontra mintzo ziren, kasik frogatua zaukaten haren krima. Ekarri dutelarik hunat, hil hurrana, edo hila, zorigaitzezko gogoeta hori egin nuen. Nere baitan nion: Hunek egin dik. Ixidor han zia gok, preso, eta egin ez duen krima, harek eta haren familiak pagatu beharko dik. Beltzak aldiz Jainkoari bakarrik emanen ditik bere kontuak. Jainkoa!... Jainkoak ikusi ahal du nere xede ona. Nork pentsa zezaken nik errana gezurra zaitekela? Ni bezalako gizon batenganik... Ni bezalako!... Bertze edozoinen erranak, gezurrezkoak zitezken, bainan nereak...? (*Ero irri batekin*) Ni bezalako gizon saindu bate-nak?...

KARMELA: Xabin! Xabin!

XABIN: Nik salbatu nahi izan zaitut, Ixidor! Zure oina-zeek erretzen ninduten, baitakit gizon zuzena zirela! Orai berriz salbatu zaitudanean eta deneri erraiten badut: «Gezurti bat naiz... Beltzak ez daut deus aitortu», denek erranen dau-tate: «Gaixo Xabin, orai ari zira gezurrean...». Bere odolaz salbatu duen gizona libratu nahi

du... Saindu bat da gure medikua! (*Etsitua*) Ez naiz saindua, ez! Bekatoros handi bat naiz!

IXIDOR: Pausa zaite, Xabin, pausa zaite! Agian ez dauztzu holakorik aitortu Joset Beltzak... bainan nola erran genezake ez dela kriminela?

XABIN: Bai, segur naiz, ez dela Martxelen hiltzalea!

KARMELA: E? Segur zirela?

XABIN: Ospitalean, haren ondoan egon naiz hilabete bat osoa. Eta orai segur naiz ez dela hura. Nere barneko harra hiltzeagatik, barrandan egon naiz, noiz agertuko zitzaidan hiltzale gisa. Bainan ez da hura hiltzalea... ez da hura.

MARITXU: Orduan, holakorik deklaratzan balin baduzu, Ixidor berriz preso ezarriko dute...

IXIDOR: Xo! Ez aipa holakorik.

XABIN: Nik badakit zer egin behar dudan. Eta sinetsi beharko naute: Nik hil dut Martxel.

KARMELA: Zuk?

IXIDOR: Zuk? Mundu guziak badaki gau hartan, bide gurutzean minartua zuen langile baten ondoan zinela... Nehork ez zaitu sinetsiko!

XABIN: Bai, sinetsi beharko. (*Osoki kexu*) Ni naiz, ni Martxelen hiltzalea!

KARMELA: Zaude ixilik!

XABIN: Nik asmatu dut Joseten aitormena, nehork ez nezan usna. Eta ez dute erranen gezurra diodala, nere gezurrari har araziko baitiot egiaren itxura.

KARMELA: Nola?

XABIN: Hemendik ihes eginez. Gaixtaginek dute baka-rik ihes egiten.

IXIDOR: Eta hori eginez zer irabaziko duzu?

XABIN: Joset Beltza salbatuko dut. Frogarik gabe kondenatuko duen tribunalik ez da. Eta are gutiago, bere burua salatuz ihes egin duenaren aitormenagatik.

KARMELA: Holakorik ez dezakezu egin!

XABIN: Utz nezazu, Karmela! Zernahi hobe da, ene herstura baino! Laster hemen dira, baizik eta Beltzak ez duela aitortu. Buruz buru ezarriko naute harekin! Eta hori ez, ez! Lotsaz eta ahalgez hil ninteke! Edo erotuko! Ihes egitea... nerezat ez da besterik. Erramuni letra bat eginen diot nere burua salatuz, eta joanen naiz urrun...

IXIDOR: Ez duzu zuk ihes joan behar! Bainan nik.

MARITXU: Ixidor!

XABIN: Ez! Badakit ez duzula hobenik.

IXIDOR: Ez eta zuk ere!

XABIN: Bainan nik, gezurrezko salatzea egin dut... Izigarrikeria egin dut... Trixte, madarikatu bat naiz...

KARMELA: Zaude ixilik, Xabin... Jainkoak gure barneko xedeak baizik ez ditu ikusten, eta zurea onazena... arras ona!

XABIN: Ez!

MARITXU: *(Ate aldera begira)* Xo!

KARMELA: Zer?

MARITXU: *(Patxi sartzen da)* Patxi da. *(Denek disimulatu nahiz)*

PATXI: *(Arras samurtua)* Haz otsoak, haz, eta berek hilen zaitute.

XABIN: Zer diozu?

PATXI: Erran duela... alimale horrek!

XABIN: *(Galdea bururatzeko beldurrarekin)* Eta...?

PATXI: Horren alde odola eman duzula! Gaixtagin baten alde! Erramun galdezka ari zitzaion, nik, ixilik ezin egonez, muturrerat bota diot... bai, hola hola: Kriminela ez bertzea...!

IXIDOR: Zu han baitzinen jujearekin?

PATXI: Ba jauna. Edo... ez jauna... enfin ba jauna. Ni bortan gelditua nintzen... Xantikin. Borta ez zen arras hetsia, keinu bat egina nion jandarmari,

ezaguna dudan bati... Eta borta zabalik utzi zaitan, dena ikusteko eta entzuteko gisan...

MARITXU: Eta Joset Beltza?

PATXI: Ai, urdea! Haren muturra! Holakorik ez duela aitortu. Ukomiloak tinkatuz, sakreka eta juramentuka, ez duela holako aitormenik behin ere egin... Zer komedienta! «Xabin jaunak hori erran duela? Gezurra dio! A, horrentzat salbatu nau, orai ni galtzeko eta hola hiltzalea salbatzeko! A, a, hiltzalearen adixkidea da!» Hara zer zion...

XABIN: Hori erran du?

PATXI: Mixerablea! Zuekin buruz buru egin nahi omen da.

XABIN: (*Hatsa galduz*) Ez!

PATXI: Ez ote ziren zu hiltzalea, hori ere erran du.

XABIN: A!

PATXI: Orduan, ezin egonez, sartu naiz eta erran diot: Ixilik, debru beltza! Hi haiz hiltzalea, hi eta hi bakarrik. (*Ikaran*) Horiek aditu-eta, tigrea bezala neri buruz egin du. Beharrik gelditu dute, bertzela xirtxikatzen ninduen. Ez nintzen fier! Lehenbailehen lepoa moztuko ahal diote!

XABIN: Xo, Patxi!

PATXI: *(Ikaraz)* E? *(Xabin jartzen da mahain aintzinean eta izkribatzen ari da)*

KARMELA: Zer egin behar duzu, Xabin?

XABIN: Utz nezazu!

KARMELA: Ez!

XABIN: Erraiten dautzut! Utz nezazu bakean! *(Izkribatzen ari da)*

KARMELA: Bainan, Jainkoaren izenean!

IXIDOR: *(Karmelari)* Behar diozkagu lehenbailehen jakin arazi Erramuni Xabinen asmoak. Ez dugu utzi behar ihes egiten.

KARMELA: Ez da joanen ihesi! *(Xabin izkribatzetik gelditua, begiak urrunerat...)*

XANTI: *(Hats hantua)* Patxi! Patxi. *(Ate ezkingean gelditzen da hatsa hartzeko)* Ai! *(Denak hari beha harrituak)*

PATXI: Zer duk?

XANTI: Beltza!

PATXI: Zer?

XANTI: Gorde hadi...

PATXI: *(Ikaraz)* Zer diok!

XANTI: Zu ere bai, Xabin jauna!

XABIN: *(Xutiturik)* Zer da? Mintza zaite!

XANTI: Ihes egin du!

GUZIEK: (*Ikaraz*) E?

XANTI: Jujea paperak sinatzen ari zelarik... (*Eskuz ihesaren keinua eginez*)

KARMELA: Jesus!

MARITXU: Ai! Ai! Ai!

PATXI: (*Zuri zuria*) Ederra egin diat!

XABIN: (*Bere buruarekin galdua bezala*) A! Ihes egin du! Orduan...

IXIDOR: Eta nondik eskapatu da?

XANTI: Ganbarako leihotik... Bon, gauden erne! Muturrak hausteko irriskuan ximixta bezala etorri naiz! Nik daukadan flakiarekin, ez dakit nola ez dudan bidean leher egin!

MARITXU: Zeren beldurra duzu?

XANTI: Ihes egin aintzin, ahapetik omen zion: «Nere eskuz xurituko diat kontu hau! Zonbait airean ibiliko ditiat!»

PATXI: Horietarik ote naiz ni? (*Burua joz*) Saltsa ederrean sartu haiz, lukainka!

XANTI: Patxi!

PATXI: Galdua nauk, Xanti!

MARITXU: Izitzen naiz, Ixidor!

IXIDOR: Ni ere, bainan ez enegatik! (*Medikua erakutsiz*) Horrengatik! (*Xabin, kopeta eskuen artean badabila*)

MARITXU: Zer egin behar da?

KARMELA: Ez dakit. Erramun hemen balitz!

MARITXU: Bagoaz xeka.

KARMELA: Zoazte! Ni hemen nago Xabinekin.

IXIDOR: Eta jujea nun da?

XANTI: Nik ospitalean utzi dut.

MARITXU: (*Karmelari*) Ospitalea hemen berean da, zato gurekin. (*Xabin jartzen da*)

KARMELA: (*Dudan egon-eta*) Bai, heldu naiz. (*Patxiri*) Zu, Patxi, zaude hemen. (*Karmela, Ixidor, Maritxu eta Xanti badoaz*)

PATXI: (*Arras beldurtua*) Alimale harek ihes egin dik, ni harrapatu nahiz. Ikusten banu, xahu nauk... Hobe diat gordea daukadan errebolbera eskuratu... zer gerta ere... bizia lehenik. (*Badoa*)

XABIN: (*Ixtant bat ixilik egon-eta*) Bertzerik ezin egin. (*Xutitzen da*) Ez! (*Egina duen letra hartzen du eta sakelan sartzen*) Hobe dut bertze nonbaitik igortzea... Bainan nondik? Nik dakita! (*Ixilik*) Orai joan behar dut, eta ikarak joa hemen nago! Bainan ihes egiteko, diru puska bat behar.

(*Armarioari buruz badoa*) Karmelak zerbait gordetzen du hemen. (*Ideki nahiz*) To, hetsia da. Tanpi. (*Zerradura saltarazten du*) Azkenean! (*Tiroar batean miatuz*) E? Zer da hau? Diruz betea den portefulla! Zonbat diru!... (*Paper zorbait erortzen dira, eta bat biltzen du eta irakurtzen*) Marcel Dubois! Bainan, portefulla hau hemen! Nere etxean! Nola daiteke?... Nola daiteke hau? Hilaren portefulla! Ai! Ai! Ai! (*Tanpa lurrerat erortzen da eta portefulla ere*)

KARMELA: Ez naiz trankil... Xabin, Xabin!... Jauna! Ikusi du! Jauna, argi nezazu! (*Denak biltzen ditu eta altzoan gordetzen*) Eta orai zer egin behar dut? (*Mublea hesten du eta erdi nigarrez*) Jauna, lagun nezazu... (*Gordetzen da*)

PATXI: Nun utzi dut nere arma? Oi! Xabin jauna lurrean! (*Haren ondoan belauniko*) Xabin jauna! (*Xutitu-eta badoa lasterka... heldu da flakoin batekin eta sudur azpian emaiten dio*) Hoinbertze odol eman-eta ez da harritzeko ahuldu bada.

XABIN: E? E? Patxi. (*Aldetik kendu nahi du eta portefulla eskuz xekatusz*) Ez! (*Xutitu-eta badoa armarioari buruz*) Hetsia da-eta! Jauna! Jauna!

(Nigarrez hasten da eta Karmela heldu zaio eta oihala erortzen da)

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

(Gaua da. Terexa, Karmela, Maritxu, Ixidor eta Patxi leihotik karrikara begira)

PATXI: Nun debru sartu zaigu Xanti?

TEREXA: Alta hitzemanan zautan, gauerdiko hemen zela!

PATXI: Nik segurik nahiago dut hemen izan. Ez naiteke trankil karrika hoitan.

MARITXU: Zer... gauaz izitzen baitzira?

PATXI: Ez, ez. Bainan Joset Beltza libro deno, ni ez naiz trankil! Nik egun goizean, erran diozkatenekin, harrapatzen banau, larrutuko nau!

MARITXU: Gizona! Ez zaitela izi! Bilduko dute ba, laster.

TEREXA: Inguruetako herrietarat ere hedatua da ba, haren ihesaren berria.

PATXI: Alde guzietan miaketan dabilta jandarmak. Bainan alferrik, nere ustez. Xoria ez da hemendik urrundu.

MARITXU: Ala uste duzu?

IXIDOR: Alde egiteko denbora izan du!

PATXI: Ba, bainan ni segur naiz hemen nonbait gorde-rik dagola.

MARITXU: Alta, hemen dituen adixkidekin...

PATXI: Aski gordetzeko. Nik segurik, joka nezake hemen dela laster.

TEREXA: Balinba!

KARMELA: Zaude ixilik, gizona, holakorik erran gabe!

IXIDOR: Eta zure ustez, zer irabaziko du hunat etorritz?

PATXI: Joset Beltza gizon tematsua da. Gogoan duena eta hura baizik ez du ikusten. Bere buruari emana balin badio hunat jin behar duela, jinen da, ez da dudarik. Eta segur naiz jaun medikuak, nik bezala pentsatzen duela. Bertzela ez liteke hain kexu!

TEREXA: Uste duzu?

PATXI: Haren aldixartzeak ez du beste arrazoinik. Ez da sendatua, bainan, halere, hatsik gabe lurre-rat erortzeko...

IXIDOR: *(Karmelari)* Hor da bederen, bere bulegoan?

KARMELA: Hori, ez dakit... *(Xutitu eta ixilik badoa aterrat)* Bai, bai, haren hantsa entzuten dut.

IXIDOR: Zain-zazu ontsa, Karmela! Xoratu bezala baitabila. Oxtian, hetsia den armario hortarat hur-

bildu da. Zerrailua eskuekin hunki eta hunki egin-eta, zentzugabeko eleak zabilzkan!

KARMELA: *(Bere emozioa disimulatu nahiz)* Zer zion ba? Ez zira oroit?

IXIDOR: Zaude... a! Ba, huna zer zion: «Ez dut ba amets egin! Bortxatu dudalako seinalea hemen da, ageri...

KARMELA: Bai, hitz bitxiak...

PATXI: *(Ikaretan)* Xo! *(Leihorat doa eta entzuten dago)*

DENEK: E?

PATXI: Mar mar mar aditzen dut hor kanpotik!

MARITXU: Bainan!

PATXI: Xxx... *(Denak ixilik. Bi dei aditzen dira)*

MARITXU: Nor ote da?

TEREXA: Agian, gure Xanti...

XABIN: *(Agertzen da)* Deitu dute?

DENEK: Bai.

MARITXU: Ez dakigu nor den.

XABIN: Ea, Patxi, zer ikusten duzun leihotik...

PATXI: *(Leihoa zabalduz)* Nor da hor?

XANTI: *(Kanpotik)* Ni nauk, Patxi. Idekak borta!

PATXI: Xanti da. Banoa idekitzerat! *(Badoa)*

IXIDOR: Jar zaite, jaun medikua! Pausa zaite.

MARITXU: Ez ahal dauku berri txarrik ekarriko.

TEREXA: Agian ez, Jainko maitea! (*Ixilik denak*)

XANTI: Jainkoak dautzuela gau on!

DENEK: Bai, zuri ere. (*Denak begiz galdeka*)

XABIN: Zer da berri, Xanti?

XANTI: Flakia, jauna!

XABIN: Ez da hortan! Iheslariaz, zer berri dakarkizu?

XANTI: Bai.

DENEK: E?

XANTI: Eta bada segur zer erran.

XABIN: Errazu, ba...

XANTI: Hemen da herrian.

PATXI: Ikusten duzu, zer nion nik!

XABIN: (*Patxiri*) Zaude ixilik! (*Xantiri*) Segur zira bederen?

XANTI: Hori, denek hala diote.

XABIN: Errazu dakizun guzia.

XANTI: (*Jartzen da*) Zure permisionearekin!... Esnea eta beti esnea... bainan nere gorputza!...

PATXI: Bon, bon!

XANTI: Ba, hamarrak eta erdietan, etxeko leihotik ateratzen ikusi dute...

DENEK: E?

XANTI: Errebolbera eskutan...

IXIDOR: Holakorik ez daiteke. Jandarmak han ziren!

PATXI: Ba. Nihaurek bat ikusi dut etxe inguruan.

XANTI: Nola sartu eta nola atera den, nik ez dakit. Bainan, hala diote...

IXIDOR: Eta... norat hartu duen, nehork ez daki?

XANTI: Ez.

PATXI: Oraikotz, urrun daiteke.

XANTI: Nik ere hola pentsatzen nuen... bainan ez omen dute ikusi herritik ateratzen.

PATXI: Ez?

XANTI: Ez. Albixurreneko mutilak eliza gibeletik joaitan ikusi omen du.

PATXI: (*Ikaratua*) Eliza gibeletik? Orduan, nere etxerat doa xuxen xuxena! Ai, ai, ai!

IXIDOR: Bon, bon!

MARITXU: Egia non den, zoaz jakiterat!

PATXI: Egiaren itxura badute bederen horiek guziek. Eta gainerat, herri huntako etxetan nornahi sar daiteke...

KARMELA: Eta gero? Hemen ez da ohoinik.

IXIDOR: Egia duzu!

KARMELA: Nik segurik armario huntan daukat ene dirua. Eta giltza eskupean ez dudalarik, xiri batekin, edo haixturrekin aise idekitzen dut zerradura.

XABIN: *(Kexu)* E?

KARMELA: *(Xabin, armariorat hurbiltzen da, eskuez gordetzen duela zerradura)* Nik hemengo ohoi-
nen beldur banintz, hobeki gorde nitzazke nere
gauzak.

IXIDOR: Eta... jandarmek badakite Albixturreneko
mutilak errana?

XANTI: Nere ustez ba. Bainan, zer gerta ere banoa
heien abisatzerat.

IXIDOR: Hobe da segurki. Deusen beldurrik balin
baduzu, nik lagunduko zaitut.

TEREXA: Bai zera!

XANTI: Nere andrearekin joanen naiz, harekin ausar-
tuko denik ez da.

TEREXA: Ez da beldurrik izan behar.

XANTI: Bai, zu zira ene zurkaitza... Gainerat, ez naiz
errexki izitzen naizen gizona... Eta aintzinerat
heldu balitzait... ez dut erranen janen dudala,
esnez bizi bainaiz... bainan xurgatu... hori,
bai!... Are, goazen, Terexa, eta gero arte!

DENEK: Ba, Jainkoak nahi badu.

PATXI: Nik ere uzten zaituztet. Agur.

XABIN: Ez ahantz biharkoak preparatzea, Patxi!

PATXI: *(Ate ondoan)* Ez jauna, ez. *(Bere buruarekin)* Ez nau harrapatuko ez, Joset Beltzak. Zer gerta ere, borta ongi hetsi-eta, armario bat emanen diot kontra.

MARITXU: Patxik daukan beldurra!

IXIDOR: Gaizoak, bere arrazoinak baditu! Beltza gizon gaixtoa da. Ez zait iduritzen hemendik urrundu-ko dela mendekatu gabe.

MARITXU: Ba pentsa! Badu aski lan, jandarmen eskue-tarik ihes egiteko!

XABIN: Eta ez balitz hura, hiltzalea? Jendea gezurrez mintzatu bada haren kontra? Ez balin badu hil, zerentzat egingen du ihes? Ihes eginez, bere kontra ari da! Ez, Beltzak ez du ihes egin, ez eta egingen... Lehenik nahiko du nerekin mintzatu... neri kontuak galdatu...

KARMELA: Ez holakorik aipa, Xabin. Iziarazten nauzu, gero. Utz-kitzu gogoeta horiek, eta oroit zaite ez zirela arras sendatua oraino. Sobera ahul zirela osoki zure buruaren jabe izaiteko. *(Kanpotik kolpe bat aditzen da... denak iziturik elgarri begira)*

IXIDOR: E?

KARMELA: Nondik zen hori?

MARITXU: Beharbada, Patxik...

XABIN: Nere bulegotik zen hori... *(Denak ikaretan)*

KARMELA: Bulegotik?... Xo... *(Denak ixilik... Joset Beltza sartzen da, atorra idekia, ileak nahasiak, zuri zuria, akitua eta hatsa labur... Denek giberat egiten dute...)*

BELTZA: Lagun nezazue!... Ondotik ditut... jandarmak... Galdua naiz... Ez dezaket gehiago... Ero bat bezala lasterka egin dut... eta heien eskue-tarat erori gabe... zuekin mintzatu nahi dut, Xabin jauna! Biek mintzatu behar dugu... baitezpada... gauza ikaragarria baita.

XABIN: Pausa zaite, Joset... pausa. Jar zaite hemen... berriz eritu gabe... Ez zira gero oraino arras sendatua.

BELTZA: Zentzua galtzerat noa. Ez dakit ametsetan ari naizen, ala atzarria naizen... Edo nere eritasunaren ondorioak diren. Eta jujeak erran dautana... otoi, otoi, esplikatu behar dautazu... nik ez baitakit deus... ez niz deusetaz oroitzen... Noiz? Noiz erran dautzut nik hil dudala Martxel? Noiz?

XABIN: Ezti zaite, Joset, ez kexa hola!

BELTZA: Oh! Oh! Jujeak erran dautanean, erotu naiz bapatean... Zutaz dudan egon naiz... ahantzirik

neretzat aita bat izan zirela... zure odola eman dautazula... Barka zadazu, Xabin jauna!

XABIN: *(Bere buruarekin)* Jainko ona!

BELTZA: Mendekatu behar nuela, eta ihes egin dut... Bainan gero, gogoetaturik, lotsatu naiz. Nere bizia salbatzeko zurea irriskuan eman balin baduzu, nola sinets ni galtzekotan ibilia zirela? Ez! Jukeak ziona, egia da; ez daiteke gezurrik atera zure ahotik... Bai, sinesten dut, aitortu dudala hiltzalea naizela... Bainan, hori erran dudalarik, ez nintzen nere buruaren jabe, segur naiz. Zentzua galdua nuen... Eroriko hartaz geroztik, ez dut burua arras xuxen... Bainan aintzinean bai, segur naiz ez dudala nehor hil. Zin egiten dautzut, jaun medikua... Nola nezake nere buruaren gain eman, egin ez dudana?

XABIN: Xo, Joset, xo! Jakin behar duzu egia osoa. Ni...

KARMELA: *(Hitza mozten dio)* Xabin...

XABIN: Utz nezazu mintzatzerat.

KARMELA: Orai ez!

BELTZA: Mintza zaite, jaun medikua. Aintzinetik sinesten ditut guziak, hain zira gizon ona. Hortakotz etorria naiz! Salba nezazu, otoi...

XABIN: Nik?

BELTZA: Bai zuk! Zuk bakarrik, egia erranez, salbatzen ahal nauzu! Ez dezaket nere gain ukan, zentzurik gabe nintzenean erran dudana. Segur naiz bertze batzuen aintzinean ere erran ditudala... ez baitzinen zu joanen jujeari kondatzerat, zuri bakarrik errana.

XABIN: Segur ote zira?

BELTZA: Bai. Bainan, nere salbatzea zure eskuetan da. Ez dea hala? Erreberietan erraiten diren hitzek ez dezakete hobengabea kondenaraz! Ez dea hala?

XABIN: Nik erranen dautzut gizonetan azkena eta tzarrena naizela.

KARMELA: Xabin! (*Besoetan hartu nahi du bere anaia*)

IXIDOR: Xabin!

XABIN: Ez hurbil! Ez neri debeka mintzatzea! Debalde-tan liteke. Gizon hunen hitzek erakutsi dautate, zoin haundia den nere bekatua! Eta ez dut gorderik atxiki nahi. Jakin-zazu beraz...

KARMELA: (*Oihuka*) Ez zozue kasurik egin! Burua galtzen ari da!

XABIN: Zaude ixilik, Karmela!

KARMELA: (*Beltzari*) Zuri bere odola eman ez geroztik, ez da arras bere buruaren jabe. Ahuleziak egin arazten dio! Otoi, ez zozula kasurik egin.

XABIN: (*Koleran, Karmelari*) Zaude ixilik, Karmela!

IXIDOR: Xabin jauna!

ERRAMUN: (*Sartzen da, bi jandarmekin, armak eskuan. Ondotik, Xanti, Terexa, Maite eta bertze zombait*) Hemen da!

BELTZA: E?

ERRAMUN: Ez zaitela higi hortik!

XABIN: Zerentzat ihes egin behar luke hobenik ez duenak? (*Denak harrituak, mur mur...*)

BELTZA: Bai, hobenik gabea! Entzun duzue denek? Hobenik gabea.

ERRAMUN: (*Jandarmeri*) Har-azue gizon hori!

XABIN: (*Artean emaiten da*) Ez! (*Jandarmek gibelerat egiten dute*) Gizon hau ez da hobenduna! Nik segurtatzen dautzuet!

KARMELA: Eta nik ere bai!

ERRAMUN: Zer?

XABIN: Entzun nezazue ixtant bat!

KARMELA: Ez zu, ez, Xabin. Zuk ez duzu deus erraitekorik. Nik behar ditut uste gabekoak agertu jaun jujeari!

XABIN: Karmela!

KARMELA: Jaun jujea, entzun nezazu, otoi, ni!

ERRAMUN: Bainan, zu... nere adixkidea!

KARMELA: Ez naiz orai adixkideari mintzo, bainan jujeari. Eta nahi nuke bakarrean entzun nezazun. Igor-kitzu denak. Eta ez deusik egin ni entzun arte.

XABIN: Ez! Ez!

KARMELA: (*Zorrozki*) Bai!

ERRAMUN: Mintzatu nahi duzunaz geroz, nere eginbidea da zure entzutea... Denak kanporat... Eta zuek (*jandarmeri*) zaindu zazue gizon hori.

XABIN: Erramun. Nik erran behar dautzut...

ERRAMUN: Gero, gero! Memento huntan, lege gizonari galdatu baitaut, ez zaitut entzuten ahal. Are! Zoazte hemendik.

KARMELA: Jaun jujea! Martxel zenaren alarguna, nahi nuke geldi dadin. Nik erran beharrak entzun behar ditu.

ERRAMUN: Alarguna? Bon! (*Maiteri*) Aditu duzu? Geldi zaite, beraz!

XABIN: (*Denen ondotik ateratzerat doa, beretzat...*)
Salbatu nahi nau. Bainan nola? Zer erran behar dio? (*Badoa*)

ERRAMUN: *(Atea hesten du denak atera-eta)* Ea! Zer den hoin seriozki erran behar dautazuna?

KARMELA: Jukeak berehala jakinen du.

ERRAMUN: Izen hori emaiten dautazu?

KARMELA: Bai!

ERRAMUN: Bon! Mintza zaite!

KARMELA: Nik hil dut Martxel!

ERRAMUN: Zer?

XABIN: *(Ate zilotik)* A!

MAITE: Egia?

ERRAMUN: Bainan...

KARMELA: Bai. Ni naiz Martxelen hiltzalea.

MAITE: Zu? Nere senarra zuk hil?...

KARMELA: Bai, nik!

ERRAMUN: Ezin daitekena da! Egiazko hobendunari bizia salbatu nahiz ari zira!

KARMELA: Ez! Maluruski!

ERRAMUN: Eta diozuna, frogatzen ahal duzu?

KARMELA: Froga hau aski dea? *(Altzotik portefulla ateratzen du eta Erramuni emaiten)*

MAITE: Nere senarraren portefulla!

KARMELA: Bai. Dirua eta guzi! Ez dut ebasteko hil!

ERRAMUN: Nola daiteke zuk izaitea portefulla hori?

KARMELA: Hilari nihaurek kendu baitiot!... Zueri sine-tsarazteko ebasteko hil zutela... eta hola, nere burua errexkiago salbatzeko!

ERRAMUN: Jauna! Ez dea amets bat hau!

KARMELA: Ez! Ez da ametsa. Egia bera!

ERRAMUN: Eta nola esplika dezakezu hiltze hori?

KARMELA: Zorigaitzaren egitatea bezala! Ez nuen holakorik gogoan. Bainan, holakoetan ez daiteke neurrik har! Nolanahika ere, ez dut urrikirik, lazgarri bazaut ere! Eta ehun aldiz berriz haste balitz, ehun aldiz egin nezake!

MAITE: Entzun duzu, jaun jujea. Hobenduna zure eskuetan duzu.

KARMELA: Zaude ixtant bat, anderea. Eta barkatu, min egiten badautzut... ez zait atsegin nehoi min egitea. Nere aitormena guziera jakin arazi aintzin, xeheki agertu behar dauzkizuet, nehork ez dakizkienak.

ERRAMUN: Bon, mintza zaite, Karmela!

KARMELA: Martxel eta biak... maitasunaz lotuak ibiliak gira zonbait denbora. Bainan, jakin nuen egun batez haren amodioa gezurrezkoa zela. Bertze baten diruak itsutua, harekin ezkontzerat zoala. Orduan utzi nuen, eta emeki emeki ene biho-

tzean itzali zen haren oroitzapena. Bakean, goxoki eta alegera bizi nintzen... (*Ixilik ixtant bat*)

ERRAMUN: Segi-zazu, Karmela, segi.

MAITE: Bai. Fini-zazu.

KARMELA: Bai, nik ere nahi dut lehenbailehen finitu... Beraz, gaineratekoak utzirik, heldu naiz hiltzearen egunera... ni eror arazteko sarea zabaldu zuen egunera.

MAITE: Nolako sarea? (*Xabin, akitua, zuri-zuria, ixilik sartzen da, xoko batean emaiten da, nehor ohartu gabe. Dena adituko du, bere sendimenduak, bere jestuez erakusten dituela*)

KARMELA: Badakizue, nere anaia laguntzen dudala erien tratatzen. Gau hartan, bide gurutzeko langile baten ondora deitua zuten, azkarki kolpatua zela. Berantetsia nuen haren beha. Eta hamarrak irian hor heldu zaut Martxel. Nere anaiaren partez heldu zela, nere xeka anaiaren laguntzeko. Arras gisaki Martxelek bere laguntza eskaini zautan. Dena sinetsi nion... ez zitzaidan gogoratu ere gaizki ibil zitakela. Bagoaz biak. Gau iluna zen, arras iluna... Urkitzatik pasatzean... bapatean bere beso pean tinkatu

ninduen, eta erran: «Nehork ez gaitu ikusten...»
Ez zuen deusik erran gehiago... Konpreni erre-
xak ziren hitz horiek... Harritu nintzen. Tranpa
bete betean eroria nintzen. Ez nuen salba bide-
rik. Bizi batean sendi daitezken oinaze guziak,
lotsa guziak, okazta guziak, errabia guziak...
bapatean nere buruan bildu ziren... Dena
batean sendi nuen. Eta oraino... iduritzen zait
sendi dudala... oraino...

ERRAMUN: Gaixoa...

KARMELA: Gero, gertatu denaz itzal ilun bat bezala
dago nere gogoan... Uste dut garrasiaka hasi
nintzela, laguntza galdez... ez nezaken ihes
egin... burdinezko esku haiek... ez, ez ziren
eskuak, burdinezko krakoak iduri zuten... nere
haragietan sartzen zirenak... Nere begietan oro
itzulika zabiltzan. Nik mintzo gogor bat bertze-
rik ez nuen entzuten... boz sarkorra, azkarra,
betea «Azkenean, nere menean zaitut», errai-
ten zaitan... nere beharriak zilatu nahi balitu
bezala.

XABIN: A!

KARMELA: Zalapartaka ari ginela, erori ginen. Bainan,
Jainkoak nahi izan zuen... bai, ez dut blasfema-

tzen... Jainkoak nahi izan zuen... nere eskuak
kausitzea sakelan zaukan eztena... Ixidorri osta-
tuan kendua zion eztena... Ez nuen deusetako
astirik izan, ezta pentsatzeko ere... Nik ez dakit
zerk eman zion nere besoari holako indarra.
Bainan eztena gorputzan sartu nion... Hau
ikara, jauna... Haiek begiak... Oraino neretan
josiak ikusten ditudala iduritzen zait... Eta...
gorputz erori zen.

ERRAMUN: Ikaragarria da!

MAITE: (*Nigarrez*) Bai... izigarria.

KARMELA: Gorputzari begira egon nintzen, ez dakit
zonbat denbora... erdi xoratua... Azkenean,
nereganatu nintzenean osoki... ikaretan dardar-
ka hasi... Gizon bat hil dun... gizon bat hil dun...
erraiten nion buruari... Justiziari konduak eman
beharko ditun... Orduantxe, ebasteko hila zute-
la sinetsarazteko, hartu nion portefulla... sake-
lan aurkitu niona... eta lasterka joan... ikarak
joa...

ERRAMUN: Karmela! Karmela!

MAITE: O! O! Egia ote daiteke zuk diozun guzia?

KARMELA: Jainkoaren aintzinean zin egiten dut.

ERRAMUN: Bainan, zer egin duzu, Karmela, zer egin duzu?

KARMELA: Ordu arte, deus urriki dudarik. Gero, bai; gero, egitate txar frango egin ditut. Neregatik izan dira Ixidorren eta Joset Beltzaren lotsak eta griñak... neregatik Xabinen buruhaustek.

ERRAMUN: Ez ote zinakien, legeak debekatzen duela gizon bat hiltzea?

KARMELA: Norberak, bere ohorea begiratzeko ere? Ez zait iduri. Eta hori nere kontzientziaren kontua da. Nik hil dut, eta agerian aitortzen dut. Bizidunen artetik gizon bat kendu dut. Horrentzat, gizonek preso emaiten ahal naute; legeak kondenaturik ere, segur naiz Jainkoak osoki barkatua nauela. (*Nigarrez ixilik ixtant bat*)

ERRAMUN: Eta orduan, Joset Beltzaren aitormena?

KARMELA: Xabinek pentsatua da, ustez eta Joset hiltzera zoala; Ixidor salbatzeko, gezurra erran du, eta gezur horrek oinazetan kizkaltzen du gaitzua! Eta nere anaia hola ikusi baino, nahiago dut zernahi...

ERRAMUN: (*Maiteri*) Badakizu nork hil duen zure senarra.

MAITE: (*Nigarrak xukatuz*) Bai...

ERRAMUN: Zure eskuetan duzu hobendunaren zor-tea... zuk bakarrik ezagutzen baituzu.

MAITE: Zuk ere badakizu.

ERRAMUN: Jukeek, lekukoek errana bakarrik dakigu. Eta zu zira aitormenaren lekuko bakarra.

MAITE: Zer erran nahi dautazu?

ERRAMUN: *(Maiteri eskuak hartuz, otoizka)* Errazu, zure ustez, kondena daitekea emazte hau?

MAITE: *(Ixtant bat ixilik egon-eta)* Ez.

ERRAMUN: Beraz, zure bihotzak erraiten dautzunaz, zure senarrak...

MAITE: *(Nigarrez)* ...Bere burua hil zuen. *(Xabin nigarrez agertzen da. Denak hari begira)*

KARMELA: Xabin! *(Ero baten gisa, Xabinek Erramun eta Maiteren eskuak musukatzen ditu. Gero bere arreba besarkatzen du)*

ERRAMUN: *(Maiteri)* Milesker, anderea, milesker. *(Kanpoko atea idekiz)* Are, zatozte denak.

KARMELA: *(Maiteri musu emanez)* Milesker, Maite.

ERRAMUN: Xabin, gorde-zkitzu zure nigarrak.

XABIN: Milesker Erramun! Miserable bat naiz! Ez dut merezi zure estimua!

ERRAMUN: Xo! *(Denak agertzen dira. Joset Beltza bi jandarmen artean)* Libra-zazue gizon hori! Bel-

tza, libro zira, eta barkatu sofriarazi dautzun guzia! Osoki hobengabe zira! (*Denak harrituak, Patxi gordetzen da*) Hartu kolpearengatik ez zinen osoki zure buruaren jabe, eta orduan erranak ez daitezke zure gain eman... jaun medikuak segurtatu daut orai berean.

BELTZA: Milesker, jaun medikua!

XABIN: (*Ukatuz*) Ez! Ez! Utz nezazue!

ERRAMUN: Jujea segur da ez zirela hobendun. Edo hobeki erraiteko, afera hortan ez da hobendunik. Aztarna edo seinale zonbaitek erakusten daukute ez dela krimarik izan... bainan bere buruaren hiltze bat. Beti hori izan da Xabinen ustea, ni ez akort izanik ere uste horrekin. Portefulla ez atxemaiteak nahasten ninduen. Bainan agertu da...

BELTZA: Portefulla agertu?

MAITE: Bai. Nere etxean berean. (*Denak alegera mintzo*)

ERRAMUN: Xabin, orai arte onartu nahi ez nuen zure «rapport»-aren beha nago, afera hau bururatze-ko. Gau on! (*Beltzarekin badoa kanporat*)

KARMELA: (*Xabini berex, Erramun erakutsiz*) Nik egin dudanak betikotz berexten gaitu...

XABIN: Ez. Erramun gizon ona da eta maite zaitu. Berak ontsa ikusiko du, bere ohorea hola zaindu duenak jakinen duela bere senarrarena begiratzan.

OIHALA